

**Gaia: Osoko Bilkurak 2020ko irailaren 25ean hasiera batez onartutako 2021. urterako Ordenantza fiskalen aldaketak**

LEHENENGOA: 2021. urterako udal zergen kuotak eta tarifak mantentzea onartzea (Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga).

BIGARRENA: Tasei dagokionez, 2021. urterako Ordenantza fiskaletan jaso beharreko tarifen eta zenbatekoak mantentzea onartzea.

HIRUGARRENA: Testuen aldaketei buruz:

- 1) Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzan: alarma egoera, hondamendi edo ezbehar publikoen kasuetarako erantsitako aldaketak onartzea.
- 2) Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzan: telekomunikazio operadoreei eta Telefonica enpresari tokiko tributuetan aplikatu beharreko araudia xedapen gehigarri berri batean jasotzea eta erantsitako testuaren aldaketak onartzea.
- 3) Musika Eskola zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasaren ordenantza fiskala: 5. eta 8. artikuluen testuetan zuzenketak egitea onartzea.
- 4) Hirigintza eta ingurumen zerbitzuen tasa arautzen duen ordenantza fiskala: zerbitzu hauei lotuta zeuden aurretiazko ordenantza biak bateratzea eta ordenantzari idazkera berria ematea onartzea.
- 5) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskala: hobarien atala berridaztea, zerga hobari berriak onartzea eta 16.2. paragrafo berria jasotzea onartzea.
- 6) Ordenantza fiskala, udal hilerriaren tasa arautzen duena: oinarri ezargarriaren atala jasotzea onartzea.
- 7) Irabazteko asmoarekin herri erabilerako lurak mahai eta aulkiekin okupatzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskala: Tasaren oinarri ezargarriari, kuotari, sortzapenari eta kitapenari buruzko artikulua testua berridaztea onartzea.



LAUGARRENA: Osoko Bilkurak, 2020ko irailaren 25eko ohiko bilkuran hasiera batez onartutako 2021. urterako Ordenantza Fiskalaren aldaketen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea onartzea, argitaratze hurrengo egunetik aurrera, hogeita hamar (30) egun ikusgai egoteko.

